



# DESBERDINTASUNAK

baztertuz

# GARAPENA

lortu

 ANIMATZAILEaren Gida  
Lehen Hezkuntza  
1-2

# Aurkibidea

📁 Aurkezpena	3
📁 Zure informaziorako	5-7
📁 Proiektu Solidarioa	8-9
📁 1. Jarduera: Desberdintasunen bila	10-11
📁 1. Jarduera (Ikaslearen fitxa)	12
📁 2. Jarduera: Zergatiak bereizten	13-14
📁 2. Jarduera (Ikaslearen fitxa)	15-16
📁 3. Jarduera: Premia bati erantzunez	17-18
📁 3. Jarduera (Ikaslearen fitxa)	19
📁 4. Jarduera: Barrualdera bidaiatuz	20-21
📁 Otoitza egiteko	22

# Aurkezpena

PROCLADE Garapenerako Promozio Klaretiarretik gonbidatu nahi zaitugu **"Desberdintasunak baztertuz garapena lortu"** izeneko kanpaina parte hartzera Animatzaile gisa.

Kanpaina honen bitartez **Hegoaldeko Herrietako emakumezkoek** bizi duten errealitatea ezagutu eta haien pairatzen duten bidegabekeriaren ondorioak aztertu nahi dugu, bai eta haur eta gazteak gizonezkoen eta emakumezkoen baldintza berdinetan parte hartu eta erabakitze aukera ematen dizkien gizarte bat eratze ekimenetan inplikatu ere.

Beti bezala, Hegoaldean lanean ari diren pertsonak izango ditugu lekuko gisa, eta egoera txarrean dauden herrienganako dugun elkartasuna zehaztuko dugu, proiektu honetik konpromisoa bultzatuz: **FAMILIA BAT BAKEAN (San Pedro Sula, Honduras)**.

Eskuartearen duzun gida honen kanpaina hau bultzatzeko lan proposamen bat izan nahi du, hau da, Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailako ikasleekin erabiltzeko proposatzen dizugun material bat. Adin horretako ikasleekin lantzeko aukeratu dugun gaia **EMAKUMEA ETA HEZKUNTZA** errealitatea da. Ea baliagarri zaizun!.

Eskerrik asko zure elkartasunagatik eta misiolari lanagatik.

PROCLADE

*Hezkuntza eta Sentsibilizazio Arloa*





# Zure informaziorako

Munduko lurralde baten ere ez dituzte gizonezkoek eta emakumezkoek praktikan eskubide berberak, ez legearen aurrean, ez gizartean ez eta ekonomia alorrean ere. Hortxe ikusten da **genero-desberdintasuna oraindik konpondu gabeko arazo bat dela**. Munduko pobreen artean %60-70 emakumeak dira. Eta hona hemen beste datu esanguratsu bat: oro har, jabetza %1a baino ez dago emakumezkoen eskutan.



Gizonezkoen eta emakumezkoen arteko desberdintasuna handiagoa da pobrezia handiagoa dagoen lekuetan. Baliabideak urriagoak direnean eta oinarriko zerbitzuak eskuratzeko zailtasunak daudenean, orduan emakumeak dira bitarteko eza era gogorrean pairatzen dutenak. **Genero-desberdintasunek pobrezia larriagotu egite dute**, amaiera gabeko gurpila edo gurpil zoro bat eratuz, eta gurpil hori hautsi beharra dago. Pobrezian bizi diren emakumeei sarritan ukatzen zaie maileguak, lurrak eta herentziak moduko bitarteko kritikoak eskuratzeko eskubidea. Munduko jabetza (lurrak, etxeak, bankuko kontuak, etab.) %1a baino ez dago emakumezkoen eskutan.

Emakumeen lana ez da aintzat hartzen ez eta sarritan ere. Emakumeen zaintza medikua eta elikadura ez dira lehentasunetatik hartzen, emakumeek ez daukate ez heziketa jasotzeko ez laguntza zerbitzuez baliatzeko aukera, eta ia ez dute parterik hartzen erabakiak hartzerakoan, ez etxean ez komunitatean.

**Heziketaren alorrean** ere desberdintasun nabarmenak ikusten dira: eskolara ez doazen 113 milioi haurretik bi heren neskatilak dira. Era berean, hiru heldu alfabetatugabeen artean bi emakumezkoak dira eta, aurreikusten denez, datozen 20 urtetan proportzioa ez da asko gutxituko. Nabarmenezkoa da baita ere zein gutxi agertzen diren emakumeak testuliburuetan eta nola ikusten diren gizonezkoen eta emakumezkoen rola testuliburu horietan.



Heziketa eta arreta medikua izateko aukera duten neska eta mutilen arteko desberdintasuna larriagoa da pobreen kasuan diru-sarrera handiagoak dutenen artean baino. Desberdintasun horiek direla eta, emakumeen eta neskatilen egoera txarragoa da eta garapenean parte hartzeko eta garapenaren onuraz gozatzeko aukera txikiago dute. Emakumearen heziketa maila handitzearena ez da bakarrik justizia kontua, nekazaritzaren produkzioa handitzeko ere balio du; izan ere, Munduko Bankuaren azterlan batek dioenez, emakumeen hezkuntza mailak gora eginez gero nekazaritzaren produkzioak ere %7tik %22ra bitarteko igoera izango luke.

Heziketarekin ere emakumeen eta beraien familien egoera hobetu ahal izango litzateke: etxekoen osasuna eta elikadura hobetzea, haurren gaixotze eta hilkortasun tasak txikiagotzea, biztanleriaren hazkundera geldiaraztea.

Eskolara doazenak orain gehiago badira ere, hezkuntzaren eraginak oraindik oso txikiak dira; izan ere, neskek eskola utzi behar izaten dute ikasketak amaitu gabe anai-arreba txikiak zaintzeko.



**Lan arloan**, esan dezakegu herri gehienetan emakumeek gizonek baino ordu gehiago egiten dutela lan. Oro har, aginte gutxiko postuak betetzen dituzte eta gizonek baino gutxiago kobratzen dute. Gainera, emakumeek egiten dituzten lanen bi herenak ez ditu inork ikusten, lan horiek ordaintzen ez direlako edo balio komertzialik ez dutelako. Munduan zehar dabilen diruaren %10a eta lantzen diren lursailen %1a da emakumeena.

Emakumeek gizartean duten partaidetza txikia da, eta horrelakoa da baita ere **Politikan**. Izan ere, estatu gehienetan oraindik emakume gutxi dira legebiltzarkide, eta, hori horrela, emakumeen iritziek eragin txikiago dute gobernuak gizarte osorako hartzen dituen erabakietan.

**Indarkeria** da emakumeek bereziki eta gehien pairatzen duten fenomeno. Gaur egun ere munduko eskualde guztietan bizi dugun errealitate tristea da indarkeria eta era askotara agertzen zaigu: etxean gertatzen den genero-indarkeria, sexu esplotazioa, bortxaketak, hilketak, haur-hilketak, organo genitalen mozketak... Nazio Batuen Erakundeak dioenez, hiru emakume edo nesken artean bik kolpeak eta sexu abusuak jasan dituzte beraien bizitzan zehar.



Urtean gutxi gorabehera 2 milioi neskatori kentzen dizkiete beren organo genitalak. Djiboutin eta Somalian nesken %98 dira mutilatuak. Bat bateko izuaz eta minaz gain, mutilazioak odol galera luzeak, infekzioak, antzutasuna eta heriotza eragiten dizkie. Ez dago erlijio bat ere inor mutilazioa jasatera behartzen duena. Tradizioa da, birjintasunari eusteko, ezkondu ahal izateko eta sexualitatea kontrolatzeko.



Indarkeria ez da emakumeen osotasun fisikoarentzat dagoen mehatxu bakarria, **osasun arazo** askok ere emakumearen kalterako dira. Esaterako: nesken elikadura mutilena baino pobrea goa da nutrienteei dagokienez, eta horrek, epe laburrera eta luzera, hainbat gaixotasun ekartzen dizkie. Era berean, emakume askok arazoak izaten dituzte haurdunaldian edo erditzean, eta horren ondorioz gaixotasun larriak izaten dituzte, hiltzerainokoak ere.

1975az geroztik Munduko 4 Konferentzia egin dira Emakumearen errealitateaz hitz egiteko. Konferentzia horien ondorioz, hona hemen 2015 urteari begira proposatutako jomugetako batzuk:

- Lehen hezkuntza unibertsala eskaintzea herri guztietan.
- Haurren hilkortasun tasa txikiagotzea, hau da bizirik jaiotzen diren 1000 haur bakoitzeko 35 baino gutxiago izatea hiltzen direnak. 5 urte baino gutxiagoko haurren hilkortasun tasaren kasuan, berriz, adin horretako 1000 haur bakoitzeko 45 baino gutxiago izatea hiltzen direnak.
- Ugaltze prozesuan osasun laguntza eskaintzea lehen mailako osasun arretarako sistemaren bidez.
- Neskek eta mutilek heziketa maila berdina izatea.
- Amen hilkortasun tasa %50 txikiago izatea.

Milurtekoaren Garapen Helburuek ere emakumeen errealitatea izan dute kontuan eta beren jomuga batzuen gai nagusitzat hartu dute.





# Proiektu Solidarioa

## HONDURAS

- Honduras Ertamerikako herria da eta 6.900.000 biztanle inguru ditu. Biztanleen erdia 1000 biztanleko herrixketan bizi da.
- Ertamerikako herri handienetako bigarrena da eta eskualdeko menditsuena.
- 1998an Honduras herria Mitch urakanaren biktima izan zen. Fenomeno horrek bost biztanletik lau kalteu zituen eta herria suntsituta utzi zuen.
- Gehienak herrixketan bizi dira eta nekazaritzan eta abeltzaintzan aritzen dira. Pertsona horiek dira alfabetatze mailarik baxuena eta zerbitzu publikoez (zaintza medikua, edateko ura, argia...) baliatzeko aukera txikiena daukatenak. Artoa eta babarrunak (*frijol*) dira bere elikagai nagusiak.
- Azken urteetan, krisi ekonomikoa dela eta, langabeziak gora egin du eta hiritarren segurtasun eza handitu egin da. Horrez gain jendea Estatu Batuetara emigratzen hasia da.



## Kezkatzeko moduko datuak

- ⚔ Hondurasen emakumea da bere etxea administratzen duena, eta bera da seme-alabaz elikatzeaz arduratzen dena.
- ⚔ Emakumeen eta gizonen soldaten arteko aldea ikaragarria da; batz besterik, gizonezkoen soldatak emakumeen halako bi eta erdi dira.
- ⚔ Herrialdearen iparraldean, emakume asko "maquiletan" (ehundegiak) ari dira lanean. Lan horretan ari diren amen %79 ama ezkongabeak dira.
- ⚔ IHESa emakumeengan gizonezkoengan baino azkarrago hedatzen ari da.
- ⚔ Egunero-egunero 50 abortu izaten dira.
- ⚔ 15 eta 19 urte bitarteko lau emakumezkoen artean batek badu seme edo alaba bat.
- ⚔ Honduraseko emakumezkoen %75ak indarkeria fisikoa nozitu du noizbait bere bizitzan.





# SAN PEDRO SULAKO CARITAS

HONDURAS



San Pedro Sulako Elizbarrutiaren Cáritas HONDURASEKO NAZIOARTEKO CÁRITASen egitura zati bat da, eta, era berean, NAZIOARTEKO CÁRITASen zatia. Honduraseko Cáritas erakundeak 8 ordezkartza ditu herrian, eta horietako bat San Pedro Sulako Diozesia dugu, Angel Garachana monsinore misiolari klaretiarra da elizbarruti horretako burua.

Honduraseko Cáritas 1967az geroztik ari da lanean eta bere jarduera esparruak honakoak dira: Nekazaritza eta Ingurumena; Emakumea eta Familia; Osasuna, etxebizitza eta Gizarte Ekintza Kristaua (pobreak, baztertuak eta ez onartuak)

2000. urteaz geroztik Cáritas, berak egiten duen lan soziala osatzeko, Elizaren doktrina sozialaren gaineko prestakuntza eskaintzen ari da.

## PROIEKTUA FAMILIA BAT BAKEAN

**Babes Etxea** San Pedro Sulako Cáritasek etxean indarkeria fisikoa zein morala jasan eta arrisku egoeran dauden emakumeei eskaintzen dien zerbitzu bat da. Babes Etxe honetan jana eta ostatu ematen zaizkie, bai eta laguntza psikologiko, sozial eta juridikoa ere.

Babes Etxe honen helburuak honakoak dira:

- Etxean indarkeria fisikoa jasaten duten emakumeak **denbora batez hartzea** (gehienez 7 egun). Emakume hauek beren seme-alaba txikiekin egon daitezke bertan.
- Emakumearen **autonomia pertsonala ahalbidetzea** prestakuntza egokia emanaz, hain zuzen ere jarduera ekonomiko produktibo bat martxan jarri ahal izateko beharrezko diren trebetasun sozialak eta ezagupenak eskuratzeko.
- Emakumeen eta beren seme-alaben **osasun psikologikoa hobetzea**, salaketak jartzerakoan aholkuak ematea eta salaketaren jarraipena egiten laguntzea.

Zentro honen funtzionamendurako gastuak (jana, prestakuntza materialak, ura, argia, zentroaz arduratzen den pertsonaren soldata) **9.000 eurokoak** dira urtean.





## 1. Jarduera **Desberdintasunen bila**

### HELBURUAK

1. Iparraldeko herrietako eta Hegoaldeko herrietako neska eta mutilak ez dituzte ikasteko aukera berdinak. Aztertu zeintzuk diren desberdintasunak.
2. Aztertu zergatik Hegoaldeko neskak ez doazen eskolara.

### EDUKIAK

1. Iparraldeko herrietan ia mutil eta neska guztiak doaz eskolara. Gehien-gehienek Lehen Hezkuntza bukatzen dute.
2. Hegoaldeko herrietan, batez ere nekazal gunetan, neskak ez doaz beti eskolara, haien heziketa ez baitago ziurtatuta. Arrazoiak asko dira: familiak seme-alaba askokoak dira eta gurasoek ez dute beti dirua izaten seme-alaba guztiak eskolara bidaltzeko; etxean asko direnez baten batek lagundu behar die gurasoei etxeko lanetan eta sarritan neskak izaten dira laguntzen dietenak; Gurasoek nahiago dute semeak eskolaratzea alabak baino (kultura batzuetan dagoen nolabaiteko matxismoa); batzuetan eskolak etxeetatik urrun daude eta gurasoek ez dute beren alabak eskolarako bidean bakarrik joatea, zerbait gertatuko zaien beldur dira.
3. Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalak dioenez, munduko neska eta mutil guztiek heziketarako eskubidea dute. Eskubide hori ez da betetzen Hegoaldeko herrietan. Gobernuak ez dute diru askorik eta diru gutxi erabiltzen dute heziketarako (eskolak eraikitzea, maisu-maistrei ordaintzea, ekipamendua).

### BALOREAK

1. Errealitatea behatzea
2. Datuen aurrean jarrera kritikoa izatea



## LAN EGITEKO PROPOSAMENA

1. Ikastetxeko gela bakoitzean (hiru gelatan egingo dugu) zenbat neska eta zenbat mutil dagoen apuntatzeko eskatuko diegu hurrei.
2. Hurrekin hitz egingo dugu: Neskak edo mutilak dira gehiago? Dagoen alde handia ala txiki al da? Ezagutzen al dugu neskaren bat eskolara ez doana? Zergatik ez doa eskolara?
3. Hegoaldeko herri bateko eskola bati buruz eman diguten informazioa irakurriko dugu. Zein desberdintasun dago eskola horren eta gurearen artean.
4. Hurrekin hitz egingo dugu: Zergatik daude hain neska gutxi eskola honetan? Gure ustez, zergatik ez doaz eskolara? Ondo al dago hori? Zergatik?
5. Ondorioak.



# Ikaslearen fitxa

## 1. Jarduera **Desberdintasunen bila**


**GALDETU HIRU GELATAN  
ZENBAT NESKA ETA ZENBAT MUTIL DAGOEN.  
IDATZI DATUAK TAULA HURRENGO TAULAN.**

GELA	NESKAK	MUTILAK	GUZTIRA
<b>GUZTIRA</b>			



**HEGOALDEKO ESKOLA BATEKO DATUAK IRAKURRI.  
ZURE ESKOLAREKIN KONPARATUZ,  
ZEINTZUK DIRA DESBERDINTASUNAK?**

GELA	NESKAK	MUTILAK	GUZTIRA
1. LEHEN HEZKUNTZA	11	35	46
2. LEHEN HEZKUNTZA	9	36	45
3. LEHEN HEZKUNTZA	7	33	40
<b>GUZTIRA</b>	<b>27</b>	<b>104</b>	<b>131</b>



## 2. Jarduera: **Zergatiak bereizten**

### HELBURUAK

1. Iparraldeko eta Hegoaldeko nesken bizimoduak alderatuko ditugu aztertzeko Zein desberdintasun dauden.
2. Neskek ezin badute eskolara joan, azertu zer ondorio eduki dezake horrek.

### EDUKIAK

1. Hegoaldeko emakumeek txikitatik egin behar dute lan. Horregatik ezin dute mutilak bezala eskolara joan.
2. Neskek etxeko lanetan laguntzen dute (ura ekarri, jana prestatu, anaia-arreba txikiak zaindu, soroetako lanetan lagundu) eta , denbora gelditzen bazaie, orduan doaz eskolara. Horrek esan nahi du neskek lan bikoitza egiten dutela ikasi ahal izateko: nekatuta heltzen dira, egunero-egunero ez doazenez gehiago kostatzen zaie azalpenak jarraitzea,...
3. Ikasi gabe etorkizunean gauza gutxi ahal izango dute: etxeko lanak baino ez zaie geldituko emakumeei; ezingo dute etxetik kanpo lan egin ez eta komunitatean edo auzoan aginteko kargurik bete. Hori horrela, gizonezkoak dira beti erabakiak hartzen dituztenak.
4. Heziketa ere oso garrantzitsua da familia bat aurrera ateratzeko. Eskolara joan den emakume batek hobeto zainduko ditu bere seme-alabak (medikuarengana eramango ditu gaixorik daudenean, hobeto elikatuko ditu), produkzio hobea izango du soroetako lanetatik,...

### BALOREAK

1. Azterketa kritikoa.
2. Bestearen lekuan jartzen jakitea.



## LAN EGITEKO PROPOSAMENA

1. Asteko egun batean egiten dutena eta zein ordutan egiten duten hori idazteko eskatuko diegu haurrei: ohetik jaiki, gosaldtu, eskolara etorri, bazkaldtu, jolastu, telebista ikusi, afaldtu,...
2. Noemi aurkeztuko diegu haurrei. Noemi 7 urteko neska bat da eta Honduraseko herrixka batean bizi da. Haurrekin batera Honduras aurkituko dugu munduko mapa batean.
3. Haurrekin batera Noemik egunean zehar egiten duena (ordutegia) ikusiko dugu.
4. Haurrekin hitz egingo dugu: Zein desberdintasun ikusten dugu? Zeinek egiten du gauza gehiago? Zein ordutegi da hobea 7 urteko neska batentzat? Zergatik?
5. Haurrek fitxan agertzen diren irudiak (triangelua, laukia, pentagonoa, hexagonoa) ordenatuko dituzte bakoitzak dituen alde kopuruaren arabera. Honako esaldi hau aterako da: **MUNDUKO NESKEK ETA MUTILEK ESKOLARA JOAN NAHI DUGU.**
6. Haurrak *Eskolara ez banoa, gero, handia egiten naizenean, zer egin ahal izango dut?* izeneko ekintza egiten hasiko dira eta horretarako testu bakoitza dagokion marrazkiarekin lotuko dute. Ondoren, bi zutabe osatuko dituzte: batean eskolara joan gabe egin dezaketena sartuko dute; eta, bestean, bakarrik eskolara joanda egin dezaketena.
7. Haurrek egindakoa bateratuko dugu eta haiekin hitz egingo dugu honako gauza hauek azpimarratuz:
  - Heziketa beti da beharrezkoa, etxeko eguneroko lanak egiteko ere.
  - Heziketa egokia izan duen emakume batek hobeto zainduko du bere familia: seme-alabak hobeto zainduko ditu, ikasketetan lagundu ahal izango die, etxetik kanpo lan egin ahal izango du, bere eskubideak eta bere familiarenak nola defendatu jakingo du,...





Eskolara ez banoa...  
gero, handia egiten naizenean,  
zer egin ahal izango dut?



LOTU IRUDI BAKOITZA BERE IZENAREKIN

MEDIKUA IZAN


SEME-ALABAK  
ZAINDU

JANARIA  
PRESTATU

ALKATEA IZAN

ARROPA  
GARBITU

EREIN



AURREKO LANAK KONTUAN HARTUZ,  
SAILKATU ZEINTZUK EGIN DITZAKEGUN ESKOLARA JOAN  
GABE ETA ZEINTZUK EZ, HANDIA EGITEN GARENEAN

EGIN DITZAKEGU	EZIN DITUGU EGIN



### 3. Jarduera: **Premia bati erantzunez**

#### HELBURUAK

1. Cortés eta Atlántida departamentuetako (Honduras) emakumeek sufritzen dituzten arazoak ezagutu.
2. FAMILIA BAT BAKEAN izeneko proiektua ezagutu eta proiektuarekin konpromiso bat hartu Honduraseko emakumeek genero-indarkeria gehiago paira ez dezaten.

#### EDUKIAK

1. Honduras Ertamerikako herri bat da eta pobreziak jota dago, batez ere, Mitch hurakanaren ondoren, lau biztanletik bostek haren eraginak bizi zituzten eta.
2. Hondurasen emakumeek ez dituzte Iparraldeko emakumeen aukera berdinak (hezkuntza, osasuna, lana...)
3. Hondurasen modu berezi batean bizi da genero-indarkeriaren arazoa. Genero-indarkeria kasu asko daude baina gehienak ez dira salatzen. Beldurragatik eta emakumea diru aldetik senarraren menpe dagoelako gertatzen da hori nagusiki.
4. San Pedro Sulako Cáritas proiektu bat martxan jartzen ari da indarkeria jasaten duten emakumeak hartu eta ekonomikoki independente izan ahal izateko behar duten lege aholkularitza eta prestakuntza egokia eskaintzeko.

#### BALOREAK

1. Errealitatea ezagutzea.
2. Empatía (bestearen lekuan jartzen jakitea).
3. Gehien sufritzen duten pertsonekin solidario izatea.



## LAN EGITEKO PROPOSAMENA

1. Hurrei eskatuko diegu irratian edota telebistan entzuten dituzten emakumeei buruzko albisteak kontatzeko. Genero-indarkeriaren arazoa gogora ekartzen lagunduko diegu.
2. Munduko mapa baten laguntzaz, HONDURAS aurkeztuko diegu: geografia, biztanleria, kultura,...
3. Neska-mutilek Lan Koadernoko mapan Honduras margoituko dute.
4. Misiolariarekin solasaldia. Pertsona honek San Pedro Sulako emakumeen egoera eta FAMILIA BAT BAKEAN proiektua aurkeztuko ditu. Aurkezpena egin eta gero neska-mutilek hitz egin ahal izango dute misiolariarekin.
5. Hurrekin hitz egingo dugu: Honduraseko emakume horiei lagundu ahal diegu? Nola?
6. Neska-mutilek bigarren ariketa egingo dute: ikurren ordezkariak jarritz proiektua aurrera eraman duen elkarrearen izena aurkituko dute..



# Ikaslearen fitxa

## 3. Jarduera: **Premia bati erantzunez**

BILATU HONDURAS MAPA HONETAN ETA BERDEZ MARGOTU



IKURRA BAKOITZAREN ORDEZ  
DAGOKION HIZKIA IDATZI ETA JAKINGO DUZU  
NORK ERAMATEN DUEN AURRERA PROIEKTUA

A	C	D	E	I	K	L	N	O	P	R	S	T	U	





#### 4. Jarduera: **Barrualdera bidaiatuz**

### HELBURUAK

1. Kanpaina honetan ikasitakoa eta bizi izandakoa fedearen ikuspuntutik ospatu.
2. Munduan gehien sufritzen dutenen alde otoitz egin, Hondurasko emakumeen alde bereziki. Geure buruen alde otoitz egin, solidarioak izan gaitzen eta FAMILIA BAT BAKEAN proiektuan elkarlanean aritzeko gauza izan gaitzen.
3. Jainkoari eskerrak eman, txiroenen alde lanean ari direnengatik.

### EDUKIAK

1. Jesusek maiz hitz egiten zien bere dizipuluei Jainkoaren erregetzari buruz: Jainkoak mundu honetarako duen ametsari buruz, Jainkoaren nahiaren arabera gizabanakoak bizi beharko genukeen erari buruz.
2. Jesusek Jainkoaren erregetza altxor bat dela esan digu. Topatzen duen orok dena saltzen du hura lortzeko, inork ere ezin duelako ezer hoberik eduki.
3. Kanpaina honetan Jesusek altxor bat erakutsi digu: sufritzen dutenei lagundu ahal izatea pixka bat hobeto bizi daitezen.
4. Partekatzea nik daukadan zerbaite ematea da (litzarrerietarako edo jostailuetarako dirua, ...). Zerbaite partekatzen dugunean "zerbaite galtzen dugu", garrantzitsua, handia dela uste dugun zerbaite irabazteko.
5. Partekatzen dugunean Jainkoak amesten duen mundua eraikitzen laguntzen diogu Jesusi, Jainkoaren erregetza egiten dugu.
6. FAMILIA BAT BAKEAN proiektuan parte hartzea, Jainkoari bere erregetza gauzatzen laguntzea da.

### BALOREAK

1. Isiltasuna.
2. Elkarbanatu.
3. Entzun.



## LAN EGITEKO PROPOSAMENA

1. Girotea. Gelaren erdian proiektuko aterpetxearen silueta jarriko dugu. Marrazki handi bat izango da, haurrek ospakizunean zehar osa dezaten.
2. Motibazioa. Kanpaina solidario bat egin dugu eta kanpainak iraun duen egunetan emakumeak munduan nola bizi diren ezagutu dugu. Jarraian, Jesusek berekin egotera eta Jainkoari eskerrak ematera gonbidatzen gaitu, oparitu zaigun bizitzarengatik (ez zaigu ezertxo ere falta), ezagutu ditugun gauzengatik (emakumeak munduan nola bizi diren), Hondurasko misiolariak egiten duten lanarengatik. Ospakizun honetan Hondurasko emakumeak gogoratuko ditugu bereziki.
3. Sarrerako kantua.
4. Hitza: Mateo 13, 44-46 (altxorren eta harribitxiaren parabolak)
  - Jesusek esan digu Jaikoaren erregetza altxor bat dela. Aurkitzen duenak bere gauza guztiak saltzen ditu hura erosteko.
  - Kanpaina honetan Jesusek altxor bat erakutsi digu: sufritzen dutenei lagundu ahal izatea pixka bat hobeto bizi daitezen. Gure esku dago eskuzabal izan eta duguna partekatzea.
  - Partekatzea norberak daukan zerbait ematea da (litxarrerietarako edo jostailuetarako dirua, ...). Zerbait partekatzen dugunean “zerbait galtzen dugu”, garrantzitsua, handia dela uste dugun zerbait irabazteko.
  - Partekatzen dugunean Jainkoak amesten duen mundua eraikitzen laguntzen diogu Jesusi, Jainkoaren erregetza egiten dugu.
  - FAMILIA BAT BAKEAN proiektuan parte hartzea Jainkoari bere erregetza gauzatzen laguntzea da.
5. Keinua: Haur bakoitzak kartoi mehe batean marraztua etxe baten zati bat izango du (atea, leihoa, tximinia). Haurrei banan-banan aterpetxearen marrazkira hurbiltzeko eskatuko zaie, eta baita proiektu hau egia bihurtzeko eta Jainkoaren erregetza eraikitzen jarraitzeko beren gauzetatik zerbait eskaini nahi dutela Jesusi esateko ere. Otoitza egin ondoren beraien duten etxearen zatia marrazkiaren gainean jarriko dute.  
Guztien parte-hartzearekin lor daiteke Hondurasko emakumeek beren aterpetxea izatea.
6. Gure Aita.
7. Irteerako kantua.



# Otoitza egiteko




**1**

Eskerrik asko, Jainko Aita, sortu gaituzulako.  
Zuk egin dituzu gizakiak, gizonak eta emakumeak.  
Elkar errespetatuz eta elkar maitez bizi gaitezen nahi duzu.  
Eskerrik asko eskolak eta irakasleak eman dizkiguzulako.  
Eskerrik asko ikasteko adimena eman diguzulako.  
Lagun iezaguzu ikasten, gure irakasleen esanak betetzen.

**2**

Jesus, munduko neska askok ezin dute ikasi.  
Ez dira eskolara joaten lan egin behar dutelako.  
Barkamena eskatzen dizugu, Jesus,  
ikasketak direla eta kezu izan garen aldiengatik,  
alperrak izan eta etxeko lanak egin izan ez ditugun aldiengatik.  
Jesus, lagun iezaguzu ikasten eta arduratsuak izaten.



**3**

Jesus, zuk irakatsi diguzu maitasunaren agindua,  
baina gizakiok ez diogu elkarri begirunerik erakusten:  
elkar iraintzen dugu, elkar jotzen dugu.  
Gizonezkoek emakumezkoak jotzen dituzte  
eta beren seme-alabek negar egiten dute.  
Jesus, erakuts iezaguzu elkar maitatzen,  
arazoak hitz eginez, begirunez, konpontzen.

**4**

Maria, sufritzen dutenen ama.  
Zuk ezagutzen duzu beren senarrek jotzen dituztelako  
negar egiten duten emakumeen mina.  
Ez dugu emakumeek gaizki pasatzen jarrai dezaten nahi.  
Eman iezaguzu emakumeei laguntzeko bihotz eskuzabala.







**PROCLADE**  
**San Francisco, 12A-3º**  
**48003 - BILBAO**  
**94 416 69 31**  
**mision-bi@terra.es**

Laguntzen du:

**bbk**